

# KOSTU EGITURA

Gure karkasen enpresan gutxieneko kostuak soilik izaten saiatzen gara, gure bezeroentzat produktuen prezioa eskuragarriagoa izateko.



Gure enpresak gaur egun duen kostu finko bakarra web-gunea sortzearen balioa da, hau da, honen hosting-a izango zena. Normalean 6€/hilabeteko eta interneteko domeinua 15€/urteko izaten dira. Lan egingo dugun lokala eta informatikako ekipoa ere kostu finkoak dira, baina gure kasuan doainik. Alde batetik, lokala familiako kide batek utzitakoa delako, bestetik, informatikako ekipoa, bakoitzak bereak dituelako, beraz berriak erosi beharrik ez dago.

Kostu aldakorren gehiena, aldiz, karkasak sortzean erabiltzen ditugun materialek osatzen dute. Nahiz eta hauek salmeten araberakoak izan, ondorengoak dira gutxi gorabehera prezioen balioak:

- Plastiko birziklatua: 6€ metroa
- Karkasen moldeak: molde bakoitza 7€
- 3D makinaren alkokailua: 1€/orduko
- PLA: masaren arabera zehazten da, 1 eta 4 kg arteko prezioa 20€ aldekoa da

Beraz karkasa pertsonalizatuaren salmentako prezioa 20€ ingurukoa izango da. Bestalde, kantitate handiko eskarietan prezioa merkeagotu egingo dugu, nolabaiteko eskaintza bat eginez.

Azkenik, kostu alkorretan barne kideen soldatak sartzen dira, baina hasiera batetik erabaki genuen, proiektuaren sorreran, irabazitako dirua honetan inbertituko genuela. Hortaz hasiera batean ez dugu soldatarik izango.